



ARABAKO EKONOMIA: Egoeraren adierazleak



2019ko ekaina

www.araba.eus



AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	5
2.1. KANPO MERKATARITZA	6
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	7
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	8
2.4. INDUSTRIA EGOERA	9
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	11
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	12



EKONOMIA INGURUNEA

- Joan de maiatzean, Europako Batzordeak (EB) Espainiarako eta Europar Batasuneko gainerako kideentzako azken aurreikuspen makroekonomikoak argitaratu zituen, eurogunean uste baino desazeleratze sakonagoa geratu den unean, haren ekonomia handien jokabide txarraren eta munduko tirabira etengabeen ondorioz.
- Batasuneko exekutiboak hamarren bat jaitsi du euroguneako 2019ko hazkuntza aurreikuspena, hain zuzen, BPGren %1,2ra. Bruselak barne produktu gordina gehiago haztea aurreikusi du 2020rako, baina berrikuspena egitean hamarren bat jaitsi du moneta bakarra partekatzen duten herrialdeentzako zenbatespena, hau da, %1,5ekoa izango da. Batasuneko exekutiboak jadanik sei hamarrenean jaitsita zuen otsailean euroguneak aurten BPGak izango zuen hazkundearen aurreikuspena. Europako Batzordeak munduan dagoen ziurgabetasunari egozten dio moteltze hori, zehazki, Estatu Batzuen eta Txinaren artean dagoen merkataritza tentsioari eta Alemaniak bere automobilgintzaren industriaren uzkurduragatik izan dituen emaitza txarrei. Nazioarteko beste erakunde batzuek berdintsu jokatu dute harrezkero: Europako Banku Zentralak sei hamarren jaitsi zuen martxoan eurogunerako zuen proiektzioa, %1,1era, eta apirilean Nazioarteko Diru Funtsak hiru hamarren jaitsi zuen berea, %1,3ra.



EKONOMIA INGURUNEA

- Euroguneko ekonomia handien artean Espainia izango da gehien haziko dena, %2,1 2019an eta %1,9 2020an. Espainiako gobernuak antzeko zifrekin ari da lanean: %2,2ko hazkundera 2019an eta, %1,9koa, 2020rako. Aldi berean, Batzordeak defizitaren aurreikuspena handitu du, %2,1etik %2,3ra 2019an eta %1,9tik %2ra 2020an. Bruselako kalkuluak ezkorragoak dira Gobernuaren aurreikuspen ofizialak baino; izan ere, %2ko defizita aurreikusten zuten urte honetarako eta %1,1ekoa 2020rako.
- Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako ekonomiak BPGd-ren % 2,4ko hazkundera izan zuen urtetik urtera 2019ko lehenengo hiruhilekoan. Tasa hori aurreko hiruhilekoan izandakoa baino hamarren bat gehiago da, baina zazpi hamarren txikiago 2018ko lehen hiruhilekoan izandakoa baino.
- Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-ak, bestalde, Eustatek aurreratutako azken informazioaren arabera, urtetik urterako % 2,3ko hazkunde positiboa izan zuen 2019ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabetekoan baino hamarren bat txikiagoa eta iaz baino bost hamarren txikiagoa.
- Eusko Jaurlaritzak ekainean berrikusi du euskal ekonomiarako dituen hazkunde aurreikuspenak, eta 2019an %2,3ko hazkundera eta 2010an %2,00ko hazkundera kalkulatu du.



ARABAKO EKONOMIA

- Aurten, Arabako esportazioak ez dira orain arte onak izan. Kanpo Merkataritzaren Estatuko Idazkaritzaren datuen arabera, Arabako esportazioek, 2019ko lehenengo lau hilabeteetan, %13,1 egin zuten behera urtearteko datuei dagokienez.

Arabako industria jarduerari dagokionez, esportazioek izan zuten jarreraren oso antzekoa izan zuen 2019an, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) %4,9ko jaitsiera metatua izan zuen urteko lehenengo lau hilabeteetan

- Arabako BPGak % 2,1eko urtetik urterako tasa positiboa izan zuen 2019ko lehenengo hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago eta duela urtebete baino 1,2 puntu gutxiago, Eustaten datuen arabera.
- Erregistratutako langabeziari buruz eskuragarri dauden azken datuen arabera (2019ko maiatzekoak), Araban langabetuen kopurua 18.987 da, orain dela urtebete baino 914 pertsona gutxiago.
- Arabako inflazio tasa joan zen maiatzean %0,9koa izan zen.



Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

	2017	2018 (*)	2019ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	7,1	2,4	-13,1	-19,2	19-apirila
Inportazioak	9,1	4,6	-0,9	-2,4	19-apirila
Estaldura Indizea (%)	176,9	173,3	163,9	160,3	19-apirila

Merkataritza Idazkaritzaren behin-behineko datuen arabera, Arabako esportazioek % 13,1eko beherakada metatua izan dute apirilera arte, eta inportazioek % 0,9koa. Horren ondorioz, estaldura indizea 163,9ra jaitsi da.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza


(*) Behin-behinekoa





Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGak % 2,1eko urtetik urterako tasa positiboa izan zuen 2019ko lehenengo hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago eta duela urtebete baino 1,2 puntu gutxiago, Eustaten datuen arabera.




Iturria: EUSTAT

(*) behin-behinekoa



Industria Ekoizpena

2018ko abuztuan hasi zen joera negatiboak bere horretan darraio. Arabako Industria Ekoizpenaren Indizeak % 4,9ko beherakada metatua izan du 2019ko lehenengo lau hilabeteetan.



Iturria: EUSTAT




Industriaren Egoera

Merkataritza Ganbarak egiten duen Industriaren Egoerari buruzko Inkestaren 2019ko lehenengo hiruhilekoaren emaitzak ikusita, badirudi enpresen ekoizpen jarduera txikiagoa izan dela eta saldo garbia txikiago izan dela duela urtebete baino. Urteko lehenengo hiruhilekoko Industria Ekoizpenaren Indizeari buruz Eustatek emandako datuek baieztatzen dute hori dela joera Araban.


Epe laburrerako aurreikuspenen arabera, aurreproduktzioa mantendu egingo da, eskaera, salmenta eta esportazio zorroak zertxobait haziko dira eta okupazioa gehixeago haziko da.

Arabako industriaren konfiantzaren adierazlea





(BPG ETA IEA) BILAKAERA



(Urtearteko bariazio tasa)

	2016				2017				2018				2019
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
ARABA													
BPG	3,4	3,0	3,0	2,8	2,6	2,9	2,6	2,9	3,3	3,0	2,8	2,2	2,1
IEA	14,3	7,7	9,3	6,4	6,4	5,6	2,3	6,1	3,2	1,2	2,5	-8,6	-3,8
EAE													
BPG	3,6	3,4	3,2	3,2	2,8	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	3,0	2,4	2,3
IEA	7,4	1,0	0,6	3,5	3,8	4,4	7,1	7,8	5,5	3,4	1,9	-2,5	0,0
ESTATUA													
BPG	3,6	3,3	3,1	2,7	2,9	3,1	2,9	3,1	2,9	2,6	2,5	2,3	2,4
IEA	4,2	0,2	0,1	1,8	1,9	2,8	2,8	5,2	2,7	0,9	0,3	-2,8	-0,1


Iturria: Eustat eta INE. IEA: 2015eko oinarria . BPG: 2015eko oinarria EAE; 2010eko oinarria Estatua. 2015eko datuak behin-betikoak. SEC 2010



Erregistratutako Langabezia

2019ko maiatzean, 18.987 langabetu zeuden guztira Araban, 2009ko irailaz geroztik izandako kopururik txikiena, eta iazko hil berean baino % 4,6 gutxiago.

Sektore guztietan murriztu da langabetuen kopurua Araban, aurreko hilarekin alderatuta, zerbitzuetan eta aurretik lanik izan ez dutenen artean izan ezik. Iazko hil berarekin alderatuz gero, langabeziak sektore guztietan egin du behera.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2017	2018	2019ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	3,0	2,6	2,4	2,4	19-I Hi
EAE	2,9	2,8	2,3	2,3	19-I Hi
Araba	2,8	2,8	2,1	2,1	19-I Hi
IEA					
Estatua	3,2	0,3	0,4	1,8	19-apirila
EAE	5,7	2,0	0,1	0,6	19-apirila
Araba	5,1	-0,5	-4,9	-8,1	19-apirila
KPI					
Estatua	1,1	1,2		0,8	19-maiatza
EAE	1,1	1,0		1,0	19-maiatza
Araba	1,1	0,8		0,9	19-maiatza
ESPORTAZIOAK					
Estatua	7,7	3,2	0,9	3,8	19-apirila
EAE	11,5	5,7	-0,2	11,5	19-apirila
Araba	7,2	2,4	-13,1	-19,2	19-apirila
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-7,8	-6,2		-5,3	19-maiatza
EAE	-6,3	-6,2		-7,3	19-maiatza
Araba	-6,7	-4,1		-4,6	19-maiatza

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	17,2	15,3		14,7	19-I Hi
EAE	11,3	10,0		9,6	19-I Hi
Araba	11,3	9,1		7,5	19-I Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	11,3	10,3		10,2	19-I Hi
Araba	11,7	10,8		11,3	19-I Hi